

Ikasurtea

**1. DBH, 2. DBH, 3. DBH, 4. DBH**

**1. Batxilergoa , 2. Batxilergoa**

**Bestelakoak: Lehen hezkuntza**

Data

**2024ko otsailaren 11 inguruan**

Lantzen diren irakasgaiak

**Biologia**

**Biologia eta geologia**

**Kultura zientifikoa**

**Fisika**

**Fisika eta kimika**

**Geologia**

**Matematika**

**Kimika**

**Teknologia**

**Teknologia industrialia**

**LANBIDE ORIENTAZIOA**

Hizkuntza

**Euskara, gaztelera eta ingelesa**

Irismen geografikoa

**Bizkaia**

**Gipuzkoa**

Erakunde sustatzailea

**2023. urtean, 24 erakundek hartu zuten parte. Ikusi xehetasunak webgunean**

## P02 - Emakumeak Zientzian

STEAM programaren deskribapen laburra. Gehienez 300 karaktere  
2017an eman zituen lehen urratsak Emakumeak Zientzian ekimenak, eta hazten eta indartzen joan da urtez urte. Otsailaren 11 Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Egun izendatu zuen Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2016an, emakume eta neska guztiek zientzian duten parte-hartzea bidezkoa eta erabatekoa izan dadin. Emakumeak Zientzian ekimenak jarduera-programa zabala sustatu, antolatu, garatu, aurkeztu eta gauzatzen du, otsailaren 11ren inguruan.

Urtero, Euskal Autonomia Erkidegoko zientzia- eta teknologia-sareko hainbat erakundek hartzen dute parte ekimena antolatzen (2023an, 24k), berariazko lankidetzaren hitzarmena sinatuz. Hitzarmena sinatzen duten erakundeek bat egiten dute ekimenaren helburuekin, eta gizarte osoarentzako ekintzak antolatzeko konpromisoa hartzen dute. Aurten, 50 jarduera baino gehiagoko programa antolatu da, publiko zabal batentzat: haurrak, nerabeak, familiak, eskolak, irakasleak, publiko orokorra eta abar.

### Helburuak

1. Neskengan eta nerabeengan zientziarako, teknologiarako, ingeniartzarako eta matematikarako grina eta helburu profesionalak piztea.
2. Jarduera zientifiko-teknikoei lotutako rol maskulinoak haustea.
3. Gure inguruko emakume zientzialarien lana ikusaraztea.

### Zer ikasten dute ikasleek?

Zientzia nesken kontua ere badela ikusarazi eta laborategietan eta zientziaren esparruan emakumeak ikustera ohitzeaz gain, ikasleak STEAM diziplinetan trebatuko dira; besteak beste, kimikan, biomaterialetan, nanozientzian, materialen zientzian, zientzia biosanitarioetan, fisika teorikoan, biologian, kriptografian, matematikan, neurozientzian eta ingeniartzan.

### Baliabideak

Ekimenari atxikitako zentroen esku daude jarduera garatzeko behar diren baliabideak: boluntarioak, esperimenterako materiala, erakustaldiak eta abar.

### Garapena

2024ko otsailaren 11ren inguruko asteetan «Eskolara itzulera» jardueran parte hartzeko aukera emango die Emakumeak Zientzian ekimenak Euskadiko ikastetxei. Jarduera horretan, ekimenari atxikitako ikerketa-zentroetako emakume zientzialariak ikastetxeetara joango dira beren lana ikasleei hurbildu eta ezagutaraztera, bai eta gaur egungo emakumezko ikasleengan bokazio zientifiko-ekonomikoa piztera ere.

2023. urtearen amaieran hasiko da diseinatzen programa, eta 2024ko urtarrilean argitaratuko dela aurreikusten da. Une horretan baieztatu ahal izango dira jarduerak, eta zientzialariak eta ikastetxeak parekatu.

### Curriculumaren edukiak

Genero-ikuspegia.  
Pentsamendu kritikoa.  
Erronka-ikuspegia.  
Zeharkako gaitasunak.

WEB [www.emakumeakzientzian.eus](http://www.emakumeakzientzian.eus)